



Goiko kale (1973), Anjel Lertxundi.

Jatorria: Koldo Mitxelena Kulturuneko Liburutegia-Gipuzkoako Foru Aldundia.

Mensajero argitaletxea(1915-)Jesusen Lagundiak sortu zuen Bilbon 1915ean. Argitaletxearen jatorrian,*El Mensajero del Corazón de Jesús*aldizkaria dago; 1866an agertu zen Bartzelonan, eta Bilbora aldatu zen 1884an. Bi urte geroago hasi zen *Tacocalendario del Corazón de Jesús*egutegi ezaguna argitaratzen. Ibilbide luzea egin du egutegiak, eta gaur egun, mugikorretarako aplikazio gisa ere argitaratzen dute. Aldizkariak zabaldu zituen bestelako lanen artean, Luis Coloma edota Remigio Vilariñojesuiten obrak ditugu, besteak beste.

1915ean sortu zuten Mensajero argitaletxea eta, beraz, euskaraz ere argitaratzen duen argitaletxe zaharrenetakoa da, batez ere gaztelaniazko lanak kaleratu dituen arren. 1917tik 1936ra, *Jesus'en Biotzaren Dey*aplazaratu zuen, bereziki erlijioaren inguruko gaiak lantzen bazituen ere, narrazioei eta poemei ere tarte bat eskaintzen zien aldizkaria. 1960ko hamarkadaren amaierara arte, erlijioari lotutako argitalpenak nagusitu ziren; besteak beste, *S. Franzisko Xabierr'en bederatzurruneko irakurraldiak* (Mendiburu, 1922), *Gurutzea eta Kalbarioa* (Van Tricht, 1936; Luis Isusik itzulia), *Santu bizitzak* (Manzisor, 1958) edota *Itun Zar eta Berria* (Olabide, 1958).

Jakina denez, 1960 eta 1970eko hamarkadetan, euskal kulturaren aldeko mugimendua indartzearekin bat, euskal argitaletxe berriak sortu ziren, euskarazko

argitalpenak sustatzeko asmoz. Testuinguru horretan, “Etor Bidean Kultura” bilduma sortu zuen Mensajero 1970ean, euskal egileen lanak eta euskarara ekarritakoak plazaratzeko. 1972an, argitaletxe autonomo bilakatu zen Etor, eta Mensajero “Gero-Mensajero” zigilupean jarraitu zuen euskarazko lanak argitaratzen. Beste askoren artean, saiakera lanak nabarmendu genitzake (Gotzon Garateren *Marxen marxismoa*, 1971, esaterako), edota euskara ikasteko metodoak (Patxi Altunaren *Euskera, ire laguna!*, 1967, kasu). Literatur lanei dagokienez, euskal idazle garrantzitsuen obrak kaleratu zituen Gero-Mensajero; esate baterako, Nikolas Ormaetxea *Orixe*, Bitoriano Gandiaga, Xabier Lete, Mikel Zarate, Anjel Lertxundi edota Joan Mari Irigoien lanak. Ordukoak dira beren ibilbidearen hastapenetan zeuden Lertxundiren *Ajea du Urturik* (1971) eta *Goiko kale* (1973) edota Irigoien *Oilarraren promesa* (1976).

Haur eta Gazte Literaturaren arloan, “Kimu” sailak hamabi urtetik aurrerako irakurleentzako narrazioak bildu zituen, euskaraz idatzitakoak zein itzulitakoak (London, Verne, Melville edota Kipling bezalako klasikoenak, adibidez). “Kimu”-n argitaratu ziren, halaber, Zarauzko eta Elgoibarko ikastoletako ikasleen idazlanekin osatutako bildumak, *Haurra ipuin denean* eta *Izarren begietan* izenburupean. Antzeko sailak dira “Kimutxo” eta “Kolorezko Kimutxo”, baina zortzi urtetik aurrerako irakurleei zuzenduak. Bestalde, “Leku bat, gizonak, historia bat” sailak historiako pasarte ezberdinak aurkeztu zituen, modu argi eta didaktikoan, eta “Ortzadar”-euskal historiari buruzko liburuak bildu zituen. “Noski”, berriz, eskolaumeentzako euskarazko testu errazen bilduma bat da.

Haur eta gazteei zuzenduta, *Tintinen* album batzuk ere euskaratu zituen Gero-Mensajero 1972tik aurrera. Halaber, *Beleko eta biak* (1975) komikia argitaratu zuen, eta baitairakurliburu eta komikiaren artean leudekeen *Irakur* 2, 3, 4, eta 5 ere. Azken horiek Erein argitaletxeak plazaratu zuen *Ipurbeltz* euskal komiki ezagunaren aitzindariak izan ziren. Gogoan izan behar da, bestalde, Erein argitaletxea bera Gero-Mensajeron aritutako lantalde batek sortu zuela, Julen Lizundia, Anjel Lertxundi eta Antton Olariaga tartean zirela.

Gaur egun, Mensajero argitaletxea Jesusen Lagundiaren Loyola Komunikazio Taldeko kidea da, Sal Terrae eta Mezulari argitaletxeekin eta SJDigital bulegoarekin batera. Talde honen barruan, Mezulari zigilupean argitaratzen dituzte euskarazko liburuak eta bildumak, batez ere, haur eta gazteei zuzendutakoak. Loyola Komunikazio Taldearen argitalpen gehienak erlijio gaien ingurukoak dira, baina badira hezkuntzaren, psikologiaren edota autolaguntzaren alorretakoak ere, besteak beste.

Izaro Arroita Azkarate
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Bibliografia

- ASKOREN ARTEAN. “Mensajero cumple 100 años”, *Información de la Compañía de Jesús en España* [sarean], 2015/06/11. [Kontsulta data: 2019/07/01]. Hemen eskuratua: <https://infosj.es/propuestas/9896-mensajero-cumple-100-anos>
- AUÑAMENDI ENTZIKLOPEDIA. “Gero”. In *AuñamendiEntziklopedia* [sarean], 2019. [Kontsulta data: 2019/07/01]. Hemen eskuratua: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/en/artikulu/66071/>
- CALLEJA, Seve. *Haur literatura euskaraz. Lehenengo irakurgaietatik 1986ra arte*. Bilbao. Labayru Ikastegia – Bilbao Bizkaia Kutxa. 1994.
- GRUPO DE COMUNICACIÓN LOYOLA. “Quiénes somos” [sarean], 2019. [Kontsulta data: 2019/07/01]. Hemen eskuratua: <https://gcloyola.com/es/content/8-quienes-somos>
- ZULOAGA SAN ROMÁN, Eneko. “Historia editorial de Euskal Herria”. In *AuñamendiEntziklopedia* [sarean], 2019. [Kontsulta data: 2019/07/01]. Hemen eskuratua: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/historia-editorial-de-euskal-herria/ar-153819/>

Dokumentu hau aipatzeko: Arroita Azkarate, Izaro (2019). “Mensajero argitaletxearen (1915-) soslaia”. In *MHLI-Memoria Historikoa Literatur Iberiarretan* URL: <https://mhli.net/artxiboa/mensajero-argitaletxea/>